

I. E R A N S K I N A

HITZARMENA, XXX(E)KO UDALAREN ETA ARABAKO FORU ALDUNDIAREN ARTEKOA, EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN ZERBITZUAREN ESKUMENAK ESKUORDETZEKO ETA EGUNEKO ARRETARAKO LANDA-ZENTROAREN GARRAIO EGOKITUKO ZERBITZUA AGINTZEARI BURUZKOA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak arautzen du botere publikoek duten betebeharraren eskubidearen titular guztiei bermatzeko prestazio eta gizarte zerbitzuetarako sarbidea eta eskuragarritasuna, lege horretan nahiz Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan finkatutako terminoetan. Hori guztia Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko udalek berretsi zutena 2016ko uztailaren 22an, Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren baitan.

12/2008 Legearen 22. artikulua arabera, Eguneko Arretako Zerbitzua udal eskumena da, eta hainbat eskumen ditu esleituta. Izan ere, Lurralde Historikoko udalerrri gehienek, tamaina eta biztanleria txikia dutenez, ez daukate zerbitzu hori eraginkortasunez emateko beharrezko azpiegiturarik.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 31. artikulua adierazten duen bezala, aldundiek ziurtatu behar dute udal eskumenerako zerbitzuak lurralde osoan modu integral eta egokian ematen direla. Bada, testu beraren 36. artikulua arabera, aldundiek, besteak beste, udal zerbitzuei dagokienez juridikoki, ekonomikoki eta teknikoki lagundu eta kooperatzeko zeregina daukate. Horrenbestez, gomendagarria da Arabako Foru Aldundiak parte hartzea udal eskumenerako zerbitzu hori ematen.

Horregatik, lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak arbitratze aldera, komeni da Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten udalen artean lankidetzaz esparru bat prestatzea udal eskumenerako zenbait betebeharrak gauzatzeko.

Lankidetzaz hori legeak jasotzen duen administrazioen arteko kolaborazio, kooperazio eta laguntza printzipioetan; besteak beste, Sektore Publikoko Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 140. artikuluan eta hurrengoetan eta Gizarte Zerbitzuen Legearen 43. artikuluan eta hurrengoetan. Hitzarmen honetan gauzatu dira horiek.

Eguneko arretako zerbitzuarekin lotutako udal zereginak izatera ezberdina izateak beharrezko bihurtzen du hitzarmen honek, lehen aipatutako 40/2015 Legearen 47. artikuluan eta hurrengoetan jasotakoaren arabera formalizatu denak, barne hartzea prestazio sozialarekin nahiz diru publikoaren bilketarekin eta Eguneko Arretarako Landa-zentroaren dagokion garraio egokituaren zerbitzuaren kudeaketaren agintzearekin lotutako funtzioak egikaritzeko eskumenak kolaboratiboki eskuordetzeko formula.

Foru lankidetzaren oinarrietako bat denez sustatzea zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea antzekoa izatea Arabako udalerrri guztietan, zerbitzua eta horren prezio publikoak arautzen dituen araudia berbera izan behar da hitzarmena sinatzen duten udal guztientzat. Horrela, gainera, eskumenen eskuordetzea erraztuko da. Horixe da zerbitzua eta horren prezio publikoak arautzeko araudia hitzarmenaren eranskin gisa txertatzearen arrazoia.

Lurralde Historikoan hitzarmen honi atxikitzen zaien udalerrietan aplikatuko da hitzarmen hau, honako klausula hauetan adierazitako terminoetan:

KLAUSULAK

Lehenengoa. Xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea da Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari dagozkion eskumenak eta hala behar duten onuradunentzako Arabako Foru Aldundiko XXX(e)ko udalaren Eguneko Arretarako Landa-zentrora joateko garraio egokituko zerbitzuaren kudeaketa agintzea.

1.2 Hitzarmenetik at geldituko dira Eguneko Arretarako Landa-zentroaren zerbitzuari buruzko informazioari, balorazioari, diagnostikoari eta orientazioari lotutako udal eskumen eta funtzio guztiak; izan ere, horiek oinarritzko gizarte zerbitzuei dagozkie, eta zuzenean udalak berak edo Kuadrillak emango ditu. Halaber, oinarritzko gizarte zerbitzu horietatik erreferentziazko profesional bat izendatuko da, kasuaren koordinazioa bere gain hartuko duena, Banakako Arreta Programa edo, kasuan kasu, Arreta Plan Pertsonalizatua egingo duena, pertsona edo familia erabiltzailearen partaidetzarekin. Esku-hartzearen jarraipena ere egingo du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin batera, eta interesdunei orientazioa eta laguntza emango die dagozkien espedienteak izapidetzeko eskaera eta beharrezko dokumentazioa formalizatzeko.

Bigarrena. Eguneko Arretarako Landa-zentroaren Zerbitzua arautzeko araudia eta hitzarmenaren eraginkortasuna.

2.1 Arabako Foru Aldundiak eta XXX(e)ko udalak konpromisoa hartu dute hitzarmen hau sinatzeko Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzu hau arautzeko udal erregelamendua eta dagozkion ordenantza fiskala onetsi ostean. Horiek hitzarmen honi erantsi zaizkio I. eta II. eranskin gisa, hurrenez hurren.

2.2. Araudi horren onespina eta indarraldia ezinbesteko baldintza da hitzarmen honen eraginkortasunerako eta indarraldirako.

Hirugarrena. Eskumenak eskuordetzearen irismena.

3.1 XXX(e)ko udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetu dio Eguneko Arretarako Landa-zentroaren Zerbitzuaren arloan honako eskumen hauek gauzatzea:

- a) Horretarako ezarrita dagoen Balorazio eta Orientazio Batzorde Teknikoaren bidez baloratzea oinarritzko gizarte zerbitzuek bideratutako espediente guztiak.

Desadostasunik egotekotan, espedientea bideratu duen udalak/kuadrillak izendatutako pertsona bera sartu ahal izango da.

- b) Proposamen teknikitik (udal gizarte zerbitzuek egina) abiatuta izapidetzea, erabat amaitu arte, zerbitzu hori ematearekin lotutako administrazio prozedurak. Horretarako beharrezko ebazpenak emango dira, eta, bereziki, prestazio horren eskubidea aitortu, eskuratu eten eta/edo iraungitzekoak, Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren udal araudi arautzailean ezarritako terminoetan.
- c) Ordenantza Fiskalean ezarritako zerbitzua emateagatiko prezio publikoen kudeaketa, likidazioa, ikuskapena eta bilketa, bat etorritik Tokiko Ogasunak erregulatzeko araudian eta, horren ordezkari gisa, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritakoarekin.
- d) Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren arloan zehatzeko ahala erabiltzea eta legez bideragarri diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.
- e) Eskuordetutako eskumenak egikaritzuz emandako egintzen aurka jarritako administrazio errekurtsoak ebaztea.

3.2 Arabako Foru Aldundiari dagokio ahal hori gauzatzea, bat etorritik indarrean dagoen araudiarekin eta, bereziki, zerbitzua eta bere prezioa arautzeko araudiarekin, bigarren klausulan aipatzen denarekin.

Laugarrena. Eguneko Arretarako Landa-zentrora joateko garraio egokituko zerbitzuaren emakidaren kudeaketa agintzearen irismena

4.1 XXX(e)ko Udalak Arabako Foru Aldundiari agindu dio Eguneko Arretarako Landa-zentrora joateko garraio egokituko zerbitzuaren emakida, eta aldundiak onartu egin du.

4.2 Arabako Foru Aldundiak aipatutako garraio egokituko zerbitzua behar bezala emateko aplikatu beharreko jarraibideak eta irizpideak eman ahal izango ditu.

4.3 Kudeaketaren agindu hori Arabako Foru Aldundiak egin ahal izango du zuzenean edo zeharka, kontratu edo hitzarmen bidez, legez ezarritako forman. Gehieneko iraupenak ezin izango du gainditu hitzarmen honen indarraldia.

Bosgarren Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

5.1 Hitzarmen honetan jasotako akordioak eta horien interpretazioa jarraitu, kontrolatu eta betetzea bultzatzeko Gobernu eta Koordinazio Batzordea sortu da.

Gobernu eta Koordinazio Batzordea honako hauek osatzen dute:

Udaletako sei (6) ordezkari, Aiaraldeko, Ipar-ekialdeko Arabako eta Hegoaldeko Arabako eremu bakoitzeko bi.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2 Gobernu eta Koordinazio Batzordeari dagokio antolaketa eta funtzionamenduari buruzko bere erregelamendu propioa egitea.

5.3 Hitzarmen honetan eta horren antolaketa eta funtzionamendu erregelamenduan aurreikusten ez den guztian, Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzionamendua arautuko dute kide anitzeko organoen funtzionamendu arauak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoak.

Seigarrena.- Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzioak

6.1 Gobernu eta Koordinazio Batzordearen funtzioak dira honako hauek:

- a. Hitzarmen honen planifikazioa, koordinazioa, jarraipena, kontrola, txostena eta interpretazioa.
- b. Hitzarmen honen edozein aldaketa edo berritze jakinaraztea.
- c. Hitzarmen honetan berariaz jasota dauden eskudantziak baliatzea.

6.2 Gobernu eta Koordinazio Batzordeari honakoen berri emango zaio urtero:

- a. Hitzarmenaren egikaritze-egoera nahiz ekitaldi bakoitzean antzemandako gorabeherak.
- b. Erakunde sinatzaileek egin dezaketen proposamenak, kexak edo iradokizunak.

6.3 Arabako Gizarte Politiken Erakunde-arteke Mahaian urtero aurkeztuko da Arabako Lurralde Historikoko Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuaren jardura memoria. Hori guztia, lurralde horretako udalekin batera Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua emateko izenpetutako hitzarmenen baitan.

Zazpigarrena.- Eskumen eskuordetuak egikaritzea eta kudeaketa agintzea.

7.1 Eskumenak eskuordetzeak ez du ekarriko titulartasuna lagatzea. Titulartasuna udalarena izango da une-oro, eta horren egikaritzea soilik eskuordetuko da.

7.2 Arabako Foru Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzordeari emango dio eskuordetutako eskumenen egikaritzearen eta agindutako zerbitzuaren garapenaren berri, gutxienez urtean behin.

7.3 XXXeko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du Arabako Foru Aldundiari eskuordetutako eskumenen egikaritzeari buruzko informazioa, bai eta agindutako zerbitzuari buruzkoa ere. Horretarako idatzi bat bidali beharko du Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika Sailera. Gehienez ere hogeit egun balioduneko epean bidaliko du informazioa Arabako Foru Aldundiak, eskaera Arabako Foru Aldundiko erregistroan sartzen den datatik aurrera zenbatzen hasita.

Zortzigarrena. Araudi ekonomiko-finantzarioa. Alderdien konpromisoak

8.1 XXXeko Udalaren konpromisoak (Eguneko Arretarako Landa-zentroak dituzten udalak)

a) XXX(e)ko Udala arduratuko da behar bezala kontserbatzeaz eta mantentze-lanak egiteaz Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua egongo den higiezinan, eta horniketen gastuak ordaintzeaz arduratuko da.

b) XXX(e)ko Udalak konpromisoa hartuko du Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua osorik emategatiko gastuetarako bere ekarpena zerbitzu horren kostu osoaren % 20koa izan dadin.

8.1 XXX(e)ko Udalaren konpromisoak (Eguneko Arretarako Landa-zentroak dituzten udalak)

a) XXX(e)ko Udalak konpromisoa hartuko du Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua osorik emategatiko gastuetarako bere ekarpena % 20koa izan dadin zerbitzu horretan XXX(e)ko Udalak okupatzen duen plaza bakoitzeko.

8.2 Arabako Foru Aldundiaren konpromisoak

Arabako Foru Aldundiak konpromisoa hartuko du Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzua osorik emategatiko gastuetarako bere ekarpena zerbitzu horren kostu osoaren % 80koa izan dadin, eta garraio egokituko zerbitzua ematearen gastuena, berriz, %100ekoa.

8.3 Urtero egingo da aurreko puntuetan hartutako konpromisoei dagokien likidazioa.

Bederatzigarrena.- Araubide juridikoa

Hitzarmen honek administrazio-izaera izango du. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoek berrikusiko dituzte bide judizialean, bai eta betearazpenean emandako egintza eta erabakiak edo horren ondoriozkoak ere.

Hamargarrena. Iraupena

10.1 Hitzarmen honek lau urteko iraupena izango du, eta 2021eko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean. Indarraldia eta eraginkortasuna bigarren klausulan aurreikusitakoari lotuta geldituko dira.

10.2 Amaitzean hitzarmena luzatu ahal izango da alderdi biek hala adostuz gero, hasierako iraupenaren besteko aldi batez. Alderdietako edozeinek hitzarmena luzatzerik nahi ez badu, besteari jakinarazi beharko dio, gutxienez amaitu baino sei hilabete lehenago.

10.3 Udal batek hitzarmen hau ez luzatzea erabakitzen badu, edozein arrazoi tarteko, horrek ez luke ekarriko bere eremuko gainerako udalek hitzarmena suntsiaraztea.

Hamaikagarrena. Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak.

11.1 Hitzarmena honakoen bitartez suntsiarazi daiteke:

- a. Alde bien arteko akordioa.

- b. Edozein alderdiren salaketa, ondorioak izan behar dituen eguna baino gutxienez sei hilabete lehenago formalizatua.
- c. Desadostasuna Gobernu eta Koordinazio Batzordearen organoan hitzarmen honen funtsezko klausulen interpretazioari buruz.
- d. Funtsezko betebeharrak konbentzionalak ez betetzea. Suntsiarazteko arrazoi hori aplikatu ahal izateko, hitzarmena suntsiarazteko interesa duen erakundeak aurrez Gobernu eta Koordinazio Batzordeari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoi hori badagoela eta suntsiarazteko asmoa duela. Jakinarazpen hori egin ostean, Batzordea deituko da, eta gehienez ere hamabost egun balioduneko epean bildu beharko da. Helburua izango da beste alderdia entzun ostean ebazpenaren jatorriari buruzko txostena egitea. Batzordearen txostena egindakoan, erakunde interesdunak dagokion ebazpena emango du.
- e. Betetzearen ondorioz gertatutako ezintasuna. Hala joko dira, besteak beste, udalak Eguneko Arretarako Landa-zentroko zerbitzuari buruzko araudi bat onetsi edo aldatzea, aurrez adostuaz bestelakoa. Hori guztia, hitzarmen honetako bigarren klausulan ezarritako terminoetan eta bertan jasotako salbuespenekin.
- f. Indarraldiaren gehienezko epea eta luzapena igarotzea.

11.2 Hitzarmena suntsitu edo iraungi ostean abiatuko da likidazioa. Hori, ukitutako udalari entzun ostean, Arabako Foru Aldundiak formulatuko du eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onetsiko du.

11.3 XXX(e)ko Udalaren hitzarmena aldebakarrez suntsiarazteak, Arabako Foru Aldundiak bete ez izanean oinarrituta, Arabako Foru Aldundia behartuko du sor daitezkeen kalte eta galeren dagokion kalte-ordaina bere gain hartzera.

Hamabigarrena.- Datuen babesa

Alderdi biek adierazi dute ezagutzen dituztela honako hauei lotutako xedapenak: datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa; Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Araudia, pertsona fisikoen babesari eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa eta 95/46/CE Zuzentaraua (Datuen babeserako erregelamendu orokorra) indargabetzen duena; eta datuak babesteari dagokionez une bakoitzean aplikagarriak diren gainerako arauak. Horrez gain, hitzarmen honen baitan erabiltzen diren pertsona fisikoen datuei dagokienez arau horietan eskatutakoak betetzeko konpromisoa hartzen dute.

Hamahirugarrena.- Hitzarmenari atxikitze prozedura

Hitzarmen hau izenpetzeko, osoko bilkuraren erabakia beharko da, eta, bertan, izenpetzea berariaz onartu beharko da, klausula guztiak eta hitzarmen honen bigarren klausulan aurreikusitako araudia onartu ondoren.